



Rafa Diez Usabiaga

Lasarte-Oria (Gipuzkoa).
1956. LABeko Idazkari
Nagusia 1992ko III.
Biltzarretik. Sindikatu honek
VII. Biltzarra burutuko du
maiatzean. Ziklo baten
amaiera eta zuzendaritza
berria iragarri dizkigu Rafa
Diez Usabiagak: “Belaunaldi
batek goi-mailako karguak
utziko ditu. Zuzendaritza
utzita ere, ez dut LAB utziko.
Sindikatuan arlo nahiko dago
gure esperientzia baliatzeko”.
Sindikalgintzaz hasi eta
politikagintzaz bukatu dugu
solasaldia ezker abertzaleko
kide garrantzizko honekin.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Karlos Corbella

«Ezker abertzalearen lidergoaren beldur da EAJ»

Lasarte-Oriako Michelin enpresan lan egindakoa da Rafa Diez Usabiaga lasartearra. Enpresak 600 lanpostu kenduko dituela iragarri zuen urrian: “Michelin-go problematika hurbiletik ezagutzen dugu, eta ez da bakarra. Arazoak deslokalizazioarekin eta lehiakortasunarekin zerikusia du. Michelinek ez dauka bidegararritasun arazorik, diru gehiago irabazi nahi izatea da kontua. Jabeak akumulazio gehiago egin nahi du eta horretarako enpresa berregituratu”.

Hau ere esan digu LABeko idazkari nagusiak: “Enpresarien argudioa litera-

tura besterik ez da. Langileok, gurea dena defendatu behar dugu argudio logikoen eta konfrontazioaren bidez”.

Zer iritzi duzu esparru honetan euskal instituzioek jokatzan duten rolaz?

Euskal instituzioek badakite Michelin-en ez dagoela krisirik, instituzioek ez lukete neutralak izan behar, ezta behatoki bat balira bezala jokatu ere. Jarrera pasibo eta neutro hau langileen aurka doa, ez da euskal esparru sozioekonomikoa defendatzearen aldekoa. Uneon, deslokalizazioa saihestu eta aurre-jubi-

lazioarekin konpondu nahi dute arazoa. Euskal Herrian ez dugu lehengairik, instituzioek badakite zein egoera latza sortzen den deslokalizazio kasuetan. Hemengo industriaren aldeko jarrera eraginkorragoa landu behar dute instituzioek, langileen eskubideen defentsan, baina ez dute egiten.

Duela ia bi urte “mugimendu sindikala fase berrian sartzen ari da” esan zenigun orriotan. Zertan da gaur egun?

Langilerian aldaketa etengabeak ematen ari dira. Neoliberalismoaren haizea

bortitzak etengabe jotzen du langileen aurka. Sindikalgintza nekez egokitzen ari da egoera berrira, gero eta arazo gehiago dauka adierazkorra izateko. Hala ere, ni konbentzituta nago euskal sindikalgintzak, bere izaera soziopolitikoa eta militantea dela-eta, aukera handiak dituela egoerari aurre egiteko, batik bat sindikalgintza abertzaleak. Sindikalgintza abertzaleak rol soziopolitiko eta sindikala jokatzeko aukerak ditu, baina zoritxarrez ez ditugu horiek lantzen eta hori oso larria da. Larria da bakoitzak bere esparrua kudeatzea eta sindikalgintzaren biderkatze lana ez gauzatzea.

Zein da oztopo sindikatu abertzaleen elkarlana ez sustatzeko?

Krisian gaude aspaldion. Bakoitzak egoeraren irakurketa egiten du, bere ildoak markatzen ditu eta ez dago konbergentzia lanik. Elkarriketa galtzen ari gara politikagintzan, gizarte eragile moduan, arlo ekonomikoan, baita instituzioen eta enpresarien aurrean ere. Egoera honetan jarraitzea oso arriskutsua da. Biziraupen irizpideekin bizitzea jokabide txarra da sindikalgintza abertzalearentzat, hausnarketa serio egin behar dugu. Areago, gu estatutik gabeko herria gara, askapen prozesu batean gaude, bestelako parametro politiko-sozialak behar ditugu Euskal Herriarentzat.

Nola atera kinka honetatik?

Hausnarketa etengabea sustatuz. Beharrak konbergentzia prozesua lantzea eramango gaitu, aldaketa prozesua etorriko da, baina ez da D egun bat izango, ez da arazo guztiak konponduko dituen egunik izango. Konbergenteak izan daitezkeen esparruetan gure indarrak aktibatzen hasi behar dugu, norabide horretan sor daitezke aukera berriak.

Non dago gakoa bide horretan joateko?

Aipatu dudana argi izatea klabea da. LABen borondate politikoa dago dau den arazoak konpontzeko. Edo gutxienez, arazoak ez daitezela aitzakia izan bide berriak urratzen hasteko.

Jose Elorrietak kritika eta autokritikoa egin ditu orrialde hauetan. LABen eta ELAren elkarlana izango al da berriz?

Guk ez dugu iraganari begira gelditu nahi. ELAk eta LABek beren ezauga-

“Hemengo industriaren
aldeko jarrera
eraginkorragoa landu behar
dute instituzioek, langileen
eskubideen defentsan,
baina ez dute egiten”

rriak dituzte, baikorrak nahiz kontraesankorrak, beren ibilbidearen araberako nortasuna dute. Hala ere, bi sindikatuok subjektu erabakitzaileen eta esparru sozioekonomikoaren alde puntu komunak ditugu. Elkarlanaren ondorioz esperientzia onak izan ditugu. Une honetako pulstu politiko-soziala ikusita, ezinbestekoa dugu planteamendu teoriko diskurtsibotik praxi komunera pasatzea. Sindikalgintza abertzaleak praxi komunean sakondu behar du, perspektiba taktiko-estrategikoko baterako beharrezkoak diren oinarriak argitzeko.

Non dago koska edo zein da kezka?

Kezka sindikalgintza abertzalearen lana behatoki baten lan soila bezala hartzea da. Filosofia hori ez da gurea. Praxian aritzeko elementu komunak ditugu, bakoitzak bere ardurak ditu, baina fase txar honekin bukatu beharra dago. Gure diskurtsioetan nahiak ageri dira, baina bitartean ez dugu deus egin. Lizarra-Garaziko garaian bi sindikatuok jokatu genuen rola garrantzizkoa izan zen abertzaleentzat. Aldaketa politikoa ematekotan den honetan, aldaketaren edukia jokoan den honetan, eragileak izan behar dugu berriz ere. Gu prest gaude urratsak emateko.

Anoetako proposamena hizpide: ezker abertzalearen autokritika espero du ELAk Jose Elorrietak.

Azken bizpahiru urtetan gertatu denaz denok ikasi behar dugu. Ezker

“Ibarretxe kapitalizatu nahi
dute berriz ere. Zer egiteko
baina? Benetako aldaketa
izateko edo aldaketarik
gabeko errekanbioa
izateko?”

EUSKAL KUTXEN FUSIOA

“Kutxak ekimenak arlo pribatura ari dira desbideratzen”

“Kutxen fusioa aztertu eta hausnartu dugunean [LABen], Euskal Herria nazio bezala hartu dugu oinarrian. Gure herriak ez dauka berezko finantza-sistematik. Kutxen fusioaren bitartez, geure finantza-sistema moduko bat landu beharko genuke, sistema euskalduna. Langileok dugu kutxetan dirua, euskal herritarrok. Kutxetako dirua zertan erabiltzen den hobeto ezagutu beharko genuke, eta esaterako, eraikuntza nazionalaren kontzeptutik, nazio baten finantza-sistema publikoa zein eskeman kokatu ondo aztertu. Iragan berrian asko hitz egin da banku publikoaz. Badirudi gaia desagertu dela, hala ere, sektore abertzaleek klabe horietan aztertu behar dute kutxen fusioa. LABek eraikuntza nazionalerako finantza-motoreak ikusten ditu kutxak, baina une honetan hori ez da EAJren eta EAren parametroetan sartzen. Beren parametroak merkantilistak dira, errentagarritasunaren eskemaren barruan. Eragile ekonomikoek globalizaziora jotzen dute eta kutxek ere norabide horretan egiten dituzte inbertsioak. Kutxen parametroak bestelako neurri analitikoetan egin behar direla uste dugu eta ez dugu halakorik ikusten. Kutxen dirua erdi-publikoa da. Kutxen izaerak hola behar luke, baina kutxen ekimenak arlo pribatura ari dira desbideratzen”.

abertzaleak ere ikaspenak atera behar ditu. Anoetako proposamena gatazka gainditzeko metodologia zen eta da. Bi eremu bereizi ziren, bien edukiak definitu. Gatazka gainditzeko tresna elkarriketa zen...

Zer gertatu zen?

PSOEek ez zuela urratsik eman ezta ezker abertzalea solaskide politiko bezala onartzeko ere.

Urrats hori eman dezan aukerarik ikusten duzu etorkizunean?

Burujabetzaren aldeko motorerik gabe ez. Subiranotasunaren aldeko turboak indarra hartzen ez badu, nekez. Gatazka gainditzeko funtsezko diren edukiak lantzeko aukera



"Ibarretxe itzuli eta Joseba Egibar ezker abertzalearen kala soziopolitikoetan arrantzan aritzeko asmoarekin ateratu da".

galtzen ari gara abertzaleok, baita Anoetako proposamenaren balioetasuna ere.

Transbertsalitatea da akordioak lortzeko erabiltzen ari den kontzeptua.

Transbertsalitateak bakoitzarentzat eta gauza bakoitzerako esanahi ezberdina du. Josu Jon Imazentzat, adibidez, badakigu zer den: Estatuarekin ados jartzea oraingo markoaren eskeman, subjektua zein den ebatzi gabe. Proiektu guztiek lekurik ez izatea, independentzia proiektuak barne. Gernikako Estatutuaren antzeko formula erabili nahi dute, herri hau eraikitzeak beharrezkoak diren oinarriak kontuan hartu gabe. Oso tentuz ibili behar dugu pozoitsuak izan daitezkeen transbertsalitateekin. Transbertsalitateak ez badira oinarritzen Euskal Herria onar-

tzeko errespetuan –konstituzionalistek hala egiten dute– faltsuak dira.

Puntu horretan gaudela, zer behar da?

Gatazka politikoa gainditzeko Euskal Herria subjektu-kontzeptua dela onartarazi behar diogu Estatuari. Marko berri horretan euskal herritarrok erabakitzen dutena onartu behar du Estatuak. Burujabetasunaren aldeko indar metaketa egin behar dugu proiektu guztien arteko borroka politikoa eta demokratikoa bideratzeko.

Ildo horiek Lizarra-Garaziko akordioan zeuden.

Proiektu subiranozalearen alde gaudenok eduki taktikoak eta estrategikoak zehaztu behar ditugu, bide horretan ibilbide orria eta borroka moduak zehaztuz. Aldi berean Euskal Herria

"Azken bizpahiru urtetan gertatu denaz denok ikasi behar dugu. Ezker abertzaleak ere ikaspenak ateratu behar ditu"

onartzen ez dutenei zein den euren minimoen planteamendua zehaztea galdetu behar zaie. Lizarra-Garazin erreferentzia horiek zehaztu genituen: Euskal Herriaren hitza eta erabakia. Euskal Herriaren marko politiko berria eraikitzea izan behar dugu helburu. Ezker abertzaleak, edo LABek gutxienez, ez du inondik inora ikusten marko demokratiko bat eskaintzeko ahalmena duenik berak bakarrik, baina estrategia berriak sustatzen saiatzen ari gara, gure ikuspegi independentista eta eredu soziala bultzatzeko.

Une honetan zer diagnosi egiten duzu normalizazio politiko prozesuaz?

PSOE ez dela gai negoziazio politikoan sartzeko. Baina prozesuan ikasitakoa erabiliko dela hurrengo aukera batean, konbentzita nago.

Prozesutik ateratu duzun ikaspenen bat.

Prozesuaren porrotaren erantzukizun handia EAJk dauka. EAJk PSOERI emandako laguntza oso erabakigarria izan da. PSOEek EAJren laguntza gabe ez zuen egingo egin duena. Prozesua abiatu zenean Imazek "Espainiako Gobernuarekiko kontrapartidarik gabeko leialtasuna erakutsiko dugu" esan zuen.

Erantzukizuna ETAk edo EAJk duen eztabaidagai beti ere.

EAJk erantzukizun historikoa du beste behin ere. Bere jomuga lidergo politiko instituzionala mantentzea da. Ez da ezker abertzalearen aldean jarri inola ere, PSOEren aldean baizik. EAJ ezker abertzalearen lidergoaren beldur da.

Prozesurako zubiak eraiki beharko dira berriz ere. Ez gaude zero puntuan, diotenez.

Ez gaude zero puntuan baina kontuz, EAJk eta PSOEek elkarri dioten leialtasunaren bidez, Estatutuaren beste erreforma eta egokitzapen bat egin dezakete berriz ere, Lizarra-Garaziko akordiotik datorren mugimendua neu-

ELKARTEEN GAINKO ZERGEN AFERA
“Enpresariak 300 milioi euro poltsikoratu dute EAEn”

“Elkarteen gainko zergen aferan EAeko diputazioen akordioak hausnarke- ta egiteko parada eman beharko liguke langileoi. Zoritzarrez, erabaki garrantziko hauek eragin gabekoak bailiran hartzen ditugu herritarrok. Oso larria da aberastasuna sortzen ari denean, administrazio publikoetan horre- lako erabakiak hartzea. Politika fiskala aberastasuna banatzeko tresna da, hazkunde ekonomiko gehien handitzen ari den honetan, politika fiskalak gehien eskuratzen duenari kendu beharko lioke dirua. Enpresariak inoiz baino gehiago irabazten ari dira. Logikaren arabera, dirua banatzeko zerga gehiago ordaindu beharko lukete enpresariak. Aitzitik, EAJk, EAK eta PSE- EEk enpresariei dirua oparitzen diete. Zergen jaitsiera horrekin enpresariak 300 milioi euro inguru poltsikoratu dute EAEn. Kopuru hori gastu sozialera- ko erabili liteke, adibidez, baina ez da aurrekontuetan sartzen. Zerbitzu sozialetan –denon zerbitzuetan– erabili liteke, baina ez da horrela egiten. Izugarria da erabakiak hain erraz onartzea. LABentzat politika fiskala gai nagusietako bat da, administrazio publikoko aurrekontuetan nola eragin duen aztertu eta segimendu berezia egiten ari gara. Sindikalgintzak jauzi bat eman behar du, gizarteko sektore kaltetuenak mugiarazi behar ditugu, erabaki hauek bereziki langilariarengan eragin oso txarra daukate”.

tralizatzea nahi dute. PSOEek azken hiru urtetan ikusi du berriz ere duela 30 urte egin zuena errepika- tzeiko aukera duela EAJrekin. EAJ- ren jokabidea medio, trantsizioan erabilitako prozesua errepikatzeiko nahia berpiztu zaio PSOEri. Ezker abertzalea aukera horren aurka borrokan ari da, aukera hori erre behar dugu.

Ibarretxeren bide orria nola balo- ratzen duzu zentzu horretan?

Ibarretxeren bide orria iruzurrera- ko joko karta sorta da. EAJ azken hauteskundeetan desgastaturik ateratu zen, ukituta iritsi zen norma- lizazio politikoaren prozesura. EAJren errekanbioa Ibarretxeren bide orria da, bere etorkizuna bermatzeko plana. Imazen aukera desgastatuta etorri da Ibarretxe. Amortizatua zegoen pertsona kapitalizatu nahi dute berriz ere. Zer egiteko baina? Benetako alda- keta izateko edo aldaketarik gabe- ko errekanbioa izateko?

Bidez bide, EAerako Na-Bai antze- ko bati buruz gogoetatu beharra aipatu du Egibarrek.

Horiek mugimendu politiko elek- toralak dira, bakoitzak bere ildoak babesteko. PSOEek ezker abertzale- ri egurra ematen dionean, EAJ- ren lehia PSEri botoak irabaztea da berriz ere. Ibarretxe itzuli eta

Egibar ezker abertzalearen kala soziopolitikoetan arrantzan aritze- ko asmoarekin ateratu da, Bergarako proposamenaren antzeko zerbait proposatu omen du orain, euskal subjektu politikoa defendatzeko...

Zuk zer diozu horren aurrean?

Esaterako, autodeterminazioa defendatzeko eta benetako pro- zesu politikoa sustatzeko erabili ditzagun datozen hauteskundeak kontsulta bezala. Konstituziona- listek jartzen dituzte hauteskun- deak, jar ditzagun burujabetasu- naren aldekoek milioi bat boto euskal subjektuaren alde. Zerga- tik ez ditugu Espainiako Kongresurako hauteskundeak –Iba- rretxek bere planarekin egin nahi duen bezala– kontsulta antolatu bihurtzen? Lau herrialdeetan kasu honetan, ez eskema parti- dista batean. Guk bloke konsti- tuzionalistari planto egitea pro- posatzen dugu. Egibarren mugimenduak Ibarretxeren pro- posamena babestera datorrela ematen du, baina gu ez gaude inoren proposamena babesteko prest. Bergarako proposamenak arazoari herri bezala ekitea plan- teatu zuen, edukiz planteatzea, negozioazio politikoa izan dadin, baina beti ere Euskal Herria era- bakitzeko subjektu politikoa dela onartuta. ■



Uriarte 4
01208 NARBAIZA | ARABA
www.nekatut.net/apezetxea
apezetxea_narbaiza@hotmail.com